

## IPARRALDEKO MENDIAK

### GIPUZKOA



#### G•25 Udalaitz

**U**dalaitzeko piramidea hiru herrialdeen mugetan altxatzen da, Elorrio eta Arrasateren artean. Geografikoki Durangaldeko mendiei badagokie ere, Atxondoko haranak banantzen dituzenez, tontor berezi eta bakan baten moduan geratzen da.

Gailur arrokatsu zorrotz eta biluziaren eta tarteka pagadiekin eta larrekin nahasten den artadi kantauriar itxi batek estalitako mendi-hegalen arteko kontrastea da paisaiak duen elementurik erabakigarriena. Baso horretan, gure lurraldean oso arraroak diren mendi-florako espezie batzuk daude.

Tontor ikusgarri horrek naturaren aldetik dituen xarrei gehitzen zaie kobazuloek, aztarnategi megalitikoek, baselizek eta kondairek osatutako kultura-ondare oparoa; hain zuzen, Udalaitz Euskadiko mendi adierazgarrietariko bat izatea eragiten duena.



#### G•26 Gorostiaga mendia (Satui)

**K**atalogatutako eremua Oñati eta Legazpi banantzen dituzten mendien zati bat da eta gailur—multzo leun bat osatzen du, oinaldean Urtatzako urtegia duela.

Baso trinko batek gaindegiaren hegalki estaltzen ditu. Baso horren orientazioak eguteretako ameztiaren eta iparraldeko laiotz—eremuko pagadi eta hariztien arteko antolamendu asimetrico tipikoa eragiten du. Gune horretan daude espezieen aldetik barietate eta aberastasun handiena duten basoak: pagadia gaztainondoarekin, haritz kandugabearekin, haltzadiarekin, urkiarekin, gurbearrekin, hurritzarekin, ahabiarekin, etab. nahasten da. Ingurunearen kontserbazio—egoera onak bertako fauna oparoa izatea ahalbidetzen du, batez ere hegazti—kopuru handiarekin.

#### G•27 Adarra—Usabelartza

**E**remu honek Leitzarain eta Urumea ibaien isurialdeen arteko banalerroa hartzen du barnean. Adarra mendia, mendizaleen artean tradizio handia duena, paisaiaren aldetik lehen mailako erreferentzia da eskualdean. Aballarrek altuera txikiagoa du, baina bere tontor erdizirkularri esker erraz ezagu daiteke.

Hedadura txikiko gune horretan ingurune oso desberdinak biltzen dira: mendiko zelaia, sasiak,

pagadiak, hariztiak eta zohikatz—eremuak. Duen zabalera eta bertako espezie bikainak direla—eta, bereziki azpimarratzekoa da Usabelartzako zohikatz; interes ekologiko handiko eremu zingiratsu horretan oxigeno—gabeziak flora oso espezializatua agertzea eragiten du. Gure ibilaldietan gailurretan elikatzen diren harrapariak ikusi ahal izango ditugu eta, agian, inguruetan gero eta urriagoa den sasi—ardia, desagertzeko arriskuan dagoen ardi erdi—basati muzina, bazkatzen ikusteko aukera ere izan dezakegu. Artzain—kulturrak gune honetan duen garrantzia eremu honetan biltzen diren monumentu megalitiko ugariak erakusten dute.